

Euskal AEko gizarte-babeseko gastua % 7,9 hazi zen, eta 24.382 milioi eurora iritsi zen 2023an

Familia/Seme-alaben eta Etxebizitzaren gastua hazi da gehien, seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomiko berriengatik eta alokairurako laguntzaren igoeragatik

Euskal AEko gizarte-babeseko guztizko gastua, 2023an, 24.382 milioi eurokoa izan zen, 2022an baino 1.792 milioi gehiago, hau da, % 7,9ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. BPGren ehunekoari dagokionez, 2022ko % 26,1etik 2023ko % 26,3ra igaro da gastu hori. Era berean, biztanle bakoitzeko gastua 11.064 eurora iritsi zen, 2022an baino % 7,3 gehiago.

Gizarte Babesaren Kontua Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europako Sistemaren (ESSPROS) metodologiaren arabera egiten da, eta **edozein erakunde publikok edo pribatuk Euskal AEn gizarte-babeseko sistemetan egindako gastua** eta diru-sarrera zenbatzen ditu. Gizarte-babeseko gastuan administrazio-gastuak eta gizarte-prestazioetako gastua sartzen dira; azken horien barruan sartzen dira eskudiruzko ordainketak eta gizarte-babeseko sistemetatik etxeek jasotzen dituzten gauzazko prestazioak.



Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2021-2023

	2021	2022 (p)	2023 (a)	2022(p)/2021 (%)	2023(a)/2022 (%)
GIZARTEBABESEKO GASTUA, GUZTIRA					
Milioika eurotan	22.011	22.590	24.382	2,6	7,9
Merkatu prezioko BPGaren %an	28,0	26,1	26,3	-1,9*	0,3*
Eurotan, biztanleko	10.051	10.313	11.064	2,6	7,3
Biztanleko EAP	10.302	10.570	:	2,6	:
GIZARTEPRESTAZIOETAKO GASTUA, FUNTZIOEN ARABERA (mila eurotan)					
GUZTIRA	21.746	22.309	24.080	2,6	7,9
Gaixotasuna/Osasun-atentzioa	5.955	6.161	6.393	3,5	3,8
Baliaezintasuna	1.368	1.383	1.459	1,1	5,5
Zahartzaroa	9.281	9.770	10.796	5,3	10,5
Umezurtz-alargunak	1.997	2.062	2.236	3,2	8,4
Familia / Seme-alabak	770	802	934	4,2	16,5
Langabezia	1.493	1.158	1.201	-22,4	3,7
Etxebizitzinak	191	187	210	-2,5	12,7
Gizarte-bazterkeria	690	787	852	14,1	8,2
ADIERAZLEAK (eurotan)					
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko	9.930	10.185	10.927	2,6	7,3
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko eta EAPn(1)	10.177	10.439	:	2,6	:
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" funtzioan egindako gastua, biztanle bakoitzeko	2.719	2.813	2.901	3,4	3,1
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	18.367	19.032	20.583	3,6	8,1
BPG mp KSE2010. 2022 oinarri (milioi euro)	78.709	86.714	92.680	10,2	6,9
Biztanleria (01-07)	2.189.858	2.190.468	2.203.629	0,0	0,6

(1)eros ahalmenaren parekotasuna

(*)aldea portzentajeazko puntutan

(p)behin-behinekoa

(a)aurrerapena

(:)ez dago daturik

Data 2025eko Urtarrilaren 29a

Iturria: Eustat. Gizarte Babeseko Kontua

Gizarte-babeseko gastu osotik, 24.080 milioi **gizarte-prestazioetako** gastuari dagozkio, eta 302 milioi **administrazio-gastuei**.

Gizarte-prestazioetako gastuak hazkunde handiak izan zituen 2023an funtzio guztietan, eta "Familia/Seme-alabak" funtzioaren hazkundea nabarmendu zen (% 16,5)

2023ko gizarte-prestazioetako gastuaren hazkundea % 7,9koa izan zen 2023an, hau da, 2022an baino 1.771 milioi gehiago. **"Familia/Seme-alabak"** gastuaren % 16,5eko hazkundearen ondorioz, gastua 934 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtean baino 133 milioi euro gehiago, batez ere seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomiko berriei zegozkienak.

"**Etxebizitzako**" gastua, gizarte-prestazioen guztizko gastuan garrantzi erlatibo txikiena duen funtzioa izanik (% 0,9), % 12,7ko hazkunde garrantzitsua izan zuen 2022aren aldean, hau da, 24 milioi gehiago, alokairu-laguntzako prestazio ekonomikoen gorakadaren ondorioz.

Nabarmendu behar da "**Zahartzaroa**" funtzioak jarraitzen duela izaten hazkunderik handiena izan duena balio absolutuetan, 2022an baino 1.026 milioi gehiagorekin, 10.796 milioira iritsiz, hau da, % 10,5eko igoerara; hazkunde hori erretiro-pentsioetan egindako gastuaren gorakadak eragin zuen batez ere (% 10,9).

Portaera positiboa izanik, % 10etik beherako baina % 5etik gorako hazkundeekin kokatzen diren beste funtzio batzuk hauek dira, hazkunde handienetik txikienera: "**Bizirauleak**", funtsean alarguntza- eta zurruntasun-pentsioak barne, % 8,4ko hazkundearekin, hau da, 2022an baino 174 milioi gehiago. "**Gizarte-bazterkeria**", % 8,2 hazi zena, hau da, 64 milioi euroko hazkundera izan zuen, eta 852 milioiko gastura iritsi zen 2023an; gastu horren barruan, hazkunderik handiena eskudiruzko prestazioei dagokie, batez ere bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta diru-sarrerak bermatzeko errentari, eta bien batura 574 milioi eurora iritsi zen 2023an. Azkenik, "**Baliaezintasuna**" funtzioa % 5,5 hazi zen, 2022an baino 76 milioi gehiago, 1.459 milioi euroko zenbatekoarekin.

Hauek izan ziren hazkunde txikiena izan zuten funtzioak: "**Gaixotasuna/Osasun-arreta**" funtzioa, 2022an baino % 3,8 gehiago gastatu zuena, hau da, 231 milioi gehiago, eta 2023an 6.393 milioi eurora iritsi zen; horietatik 5.027 milioi osasun-arretako zerbitzuen gastuari zegozkion, eta 1.366 milioi eskudiruzko prestazioei (aldi baterako ezintasunagatik prestazioak). Azkenik, "**Langabeziako**" gastua izan zen hazkunderik txikiena izan zuena, termino erlatiboetan zein absolutuetan; 2023an gastu hori 1.201 milioi eurokoa izan zen, 2022an baino 43 milioi gehiago, hau da, % 3,7ko hazkundera.


Ez da aldageta handirik nabarmentzen prestazioetako gastuaren portzentajezko banaketan, aurreko urteekin alderatuta

2023an garrantzia irabazi duten funtzioen artean, "**Zahartzaroa**" funtzioa nabarmentzen da (funtzio horrek pentsioetara, mendetasunarekin lotutako prestazio ekonomikoetara eta gauzazko beste prestazio batzuetara, hala nola egoitza-zerbitzuak eta etxeko laguntza, bideratutako gastua barne hartzen du), funtzio garrantzitsuena izaten jarraitzen duena, gizarte-prestazio guztien % 44,8ko pisuarekin, hau da, aurreko urtekoa baino ehuneko puntu 1 handiagoa.

Garrantzia irabazten duten gainerako funtzioei dagokienez, honako hauek daude: "**Familia eta seme-alabak**", 2022an % 3,6 izatetik 2023an % 3,9 izatera igaro baita, eta "**Bizirauleak**" eta "**Etxebizitza**", biek hamarren bat irabazi baitute, % 9,2tik % 9,3ra igaroz lehen kasuan, eta % 0,8tik % 0,9ra bigarreanean.

Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa Euskal AEn, funtzioen arabera. 2023

Milaka euro eta ehunekoa



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Garrantzia galdu duten funtzioen artean, "**Gaixotasuna/Osasun-arreta**" funtzioa dago. Funtzio hori garrantzian bigarrena da, 6.393 milioirekin 2023an, eta prestazioetan egindako gastuaren % 26,5 izan zen, hau da, 2022an baino ehuneko 1,1 puntu gutxiago. "**Langabezia**" funtzioak ere bere pisua murrizten jarraitu zuen 2022ko % 5,2tik 2023ko % 5,0ra; eta "**Baliaezintasuna**" funtzioak, 1.459 milioi euroko gastuarekin, % 6,2tik % 6,1era jaitsi zen. Azkenik, "**Gizarte-bazterkeria**" 2022an bezalaxe mantendu da, hau da, gizarte-prestazio guztien % 3,5.

Gizarte-babeseko gastua egiten duten **erakunde-unitateei** dagokienez, **Gizarte Segurantzako Sistemak eta Estatuko Administrazioak** 2023an egindako gastua guztizkoaren % 61,3 izan zen, eta % 8,4 hazi zen 2022aren aldean, 14.946 milioira iritsiz; horietatik 8.980 milioi erretiro-pentsioei zegozkien.

Gastua erakunde-unitateen multzoaren eta urtearen arabera (milioi euro). 2020-2023

	2020	2021	2022 (p)	2023 (a)	Urteko aldakuntza-tasa (%)		
					2021/20	2022(p)/21	2023 (a)/22
Gizarte Segurantzako sistema eta Estatuko Administrazioa	13.380	13.487	13.788	14.946	0,8	2,2	8,4
Euskal administrazioak	6.665	7.064	7.290	7.828	6,0	3,2	7,4
Erakunde pribatuak	1.419	1.459	1.512	1.608	2,8	3,6	6,4
Gizarte babeseko gastu osoa	21.464	22.011	22.590	24.382	2,5	2,6	7,9

(p)behin-behinekoa

(a)aurrerapena

Data 2025eko Urtarrilaren 29a

Iturria: Eustat. Gizarte Babeseko Kontua


7,4ko hazkundearekin. Hazkunde hori, alde batetik, osasun-sistema publikoaren gastuaren hazkundeari dagokio, % 3,7 hazi baitzen, 4.753 milioi eurora iritsiz. Bestalde, gizarte-zerbitzuen sistema publikoaren gastuak, Eusko Jaurlaritzako erakundeak, foru-aldundiak eta toki-administrazioak barne hartzen dituenak, 3.075 milioi euroko gastua izan zuen guztira, 2022an baino % 13,6 gehiago, 369 milioi gehiago. Gastu hori batez ere familiei laguntzeko prestazio ekonomiko berriei, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoen igoerari egokitu zitzaizen.

Azkenik, **erakunde pribatuen** gastua, 1.608 milioi euroko gastuarekin, guztizkoaren % 6,6 izan zen, eta % 6,4ko hazkundera izan zuen.

Europarekiko konparazioari dagokionez, gastuaren bilakaera, termino erlatiboetan, inguruko herrialdeek Europan dutenaren antzekoa da.

Gizarte-babeseko gastua, guztira. Nazioarteko alderaketa


BPGaren ehunekoan



Iturria: Eustat. Gizarte babesaren kontua

Euskal AEn, gizarte-prestazioetako gastua, BPGren ehunekoan, ehuneko 0,3 puntu hazi zen 2023an, % 26,0ra iritsiz; horrek Espainiaren gainetik jartzen du (% 25,0) eta 27-EBko ratioaren % 26,8ra hurbiltzen du, Eurostatek 2023rako egindako estimazioen arabera.

Biztanle bakoitzeko gizarte-prestazioetan egindako gastuaren adierazleari dagokionez, Euskal AEn 10.927 eurokoa izan zen 2023an, 27-EBko (10.222), Espainiako (7.733) edo Italiako (10.118) batez bestekoaren gainetik, besteak beste. Taularen goiko muturrean Luxenburgo (27.290 euro) eta Danimarka (17.634 euro) daude.



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62